

Lotan dago Laura

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1998



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Lotan dago Laura

Imanol Azkue Ibarbia

Julene Azpeitia 11. ipuin lehiaketa

1998

1. saria eta Zumaiako onena

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Imanol Azkue Ibarbia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Azkenaldian alfer-alferrikakoa nuen iratzargailua.

la egunero logelatik kanpo sumatzen nituen soinu txikiek esnatzen nindutelako. Edo bestela barnean denok izan ohi dugun oilarrak jotzen zidalako kukurruku. Berdin zen zein arrazoiengatik, baina azkenaldian iratzargailu amorragarri hark jo aurretik zabaltzen nituen begiak.

Zelako kausa zela, esnatutakoan ez nuen garai batean egin ohi nuena egiten. Esan nahi dut loaren haria eteteagatik ez nintzela kezkatzen eta bost minuturo erlojuari begira hasten; minutuak arinegi iragaten zirela-eta ohe barruan ez nintzela jartzen kirioak dantzan. Ez nion garai batean ohikoa nuen pentsamenduen kateari heltzen, nola edo hala gehiago deskantsatu beharra neukala, bestela ez nuela errendituko lanean eta gehiago larritzen ninduten horrelako ergelkeria andana, alegia. Garai batean horrela ibiltzen nintzen, baina gaur egun ez. Duela hilabete batzuk Laura nirera erretiratzen hasi zenetik ederki eta pozik esnatzen nintzen iratzargailuaren txistuak jo baino lehen.

Lehen bai, loaren haria eteten zidan edozein arrazoi nahikoa nuen sutan jarri eta mekauenka hasteko, zitzada mingarri batekin esnatu izan banindute bezala. Oroitzapenetan aztarrika egin eta ahalegin handirik gabe gogora ekar ditzaket, adibidez, duela ez hainbeste ia egunero esnatzen ninduen kaleak garbitzeko udaleko makinatzarra, kalean gora, kalean behera, jendeak zezenen aurrean baino askoz zarata handiagoa ateratzen zuena, eulitzarraren burruna madarikatua. Edo, ai, nola ahaztu gure Felipe, etxe azpian auzoko dudan kabroi hori, goizero-goizero logelako leiho azpian aparkatzen zuen auto diesela arrankatu eta berotzeko minutu oso batean kotxeari aterarazten zizkion marrua amaigabeak, kotxea akabatu beharrean. Denboraldi batean beldurrak airean egon nintzen, baina azkenean ez zuen jakin nori erori zitzaion loreontzia parabisaren gainera eta harrezkero ez dut atzera kotxe hura berriz sumatu. Edo nola ahaztuko dut, ba, Olivos kalean bizi nintzenean bazela etxe azpian okindegi bat, eta bazela egunero-egunero eguna argitzerako ogia ekartzen zuen ogizale bat, bakaladero zikin amorratua, eta deskarga egitean sarritan kotxeko ateak zabal-zabalik uzten zituela, auzoko norbaitek Udaletxean salatu zuen arte. Ez, ez nintzen ni izan. Gustura asko salatuko nukeen, baina ausartu egin behar. Marmarra eta zikina ibiliko nuen, bai, esnarazten ninduten haien kontra. Baina gero zer? Betiko moduan kikildu eta uzkurto. Horrelakoetan zer haiz, ba, gauza txepela eta herabea, lñaki.

Baina horiek guztiak aspaldiko kontuak dira. Azkenaldian, Laura nirera erretiratzen hasi zenetik logelaren kanpoaldean entzuten ditudan soinu txiki isilen segidak esnatzen nau gehienetan, gaur goizean bezala.

Lehenengo ateko sarrailako giltza soinua entzun dut, kra-kra, eta geroago nahi baino ozenago korridorean zehar irristatu diren urrats nekatuak. Frigorifikoaren atearen danbatekoa; kask, katilu soinua; mikrouhin labearen atea ixten eta martxan jarri dela. Artean begiak itxirik eta ezertarako gauza ez nintzela Laura imajinatu dut sukaldean, entzimeraren aurrean zutik, gezurrezko marmol hotzaren gainean jarritako Cola Cao katilukada berotan Campesina gailetak binaka hartuta elkarren atzetik busti eta irensten, urdaila zertxobait beteta oheratutakoan loak errazago hartuko duelakoan. Belarriaz sukaldetik zetozen soinu ahulak jarraitzearekin batera, eta jakinagatik garaiz nenbilela, iratzargailuko zenbaki berdeetako orduari so egin diot. Seiak eta bost ziren. Burua beste aldera bueltatu eta begiak erdi irekita egunsentia preso sumatu dut logelako horman, pertsiana arteko zirrikituetatik bere eskuak indarrez sartu eta iluntasuna uxatu nahian. Kanean sumatzen ziren autoen soinuak artean isilak eta bakanak ziren, inor esnatzeko beldurrez gurpil gainean ibili beharrean hanka puntetan ibiliko balira bezala. Eguraldiak, itxura batera, udako bero astun eta zapa iragartzen zuen eta artean goiz bazen ere, laster batean erlauntza bihurtuko zen hiri handia hasia zen esnatzen eta nagiak ateratzen.

Ni ere espabilatzen ari nintzela, pixkanaka ate paretik azaldu eta logelan sartzen sumatu dut, isil-isilik. Logelan hondoa jo behar zuen belaontzia zirudien, oihal guztiak eraitsi eta bilduta, eta mamu bat bezala mugitzen zen Laurari "Egunon" esan diot, jakin zezan gaur ere esna nengoela, eta berak "Gabon" erantzun, esanez bezala "Nekatuta nago eta utz nazazu bakean, ez daukat berriketarako gogorik-eta". "Zer moduz?", nik, eta "Bien. Como siempre" berak. Stop.

Kasu eta hitz gehiago gabe, logela zeharkatu du ohe paretik iraganaz eta biluzten hasi, nik begirik kentzen ez niola, arropak erantzeko horretarako propio erabili ohi dugun logelako txoko inguruan. Handik hasita ohera etortzeko bidean biluztearen lorratza utzi du, hemen kamiseta, han gona, harantzago sandaliak eta galtzerdiak, bidean kendu ahala. Ohera gerturatu eta etzan beharrean abaildu egin zait alboan, ibiliaren ibiliz aspaldian atsedetik hartu ez duten zapata pareta bezala, zokoratutakoan atsedetik, mugitzeko ere gauza ez zela. Ukitu ere egin gabe bizkarra emanda jarri zait luze bezain zabal, eta hasperen egin... loari deia. Nik, ordea, inondik ere ezin etsi eta lehenengo gerri aldean pausatu diot eskua, jakin bainekien ordura arte ohe barruan gordeta egonik beroa eta amultsua nuela. Atzamarrak kulero zuriaren goma azpitik sartu eta kanporantz tira eta utzi, tira eta utzi, emeki, distantziak neurtuz bezala. Aldaka ferekatu diot eta hotza sumatu, baina gerri bueltako haragia baino jelatuagoa gogoia. Begira-begira geratu natzaio, eskuaren bidez luzatzen zen beroaz eta suharraz konturatuko zelakoan, sikiera burua jiratu eta kasu apurra egingo zidan esperantzaz. Gehienetan bezala haragia kiskali beharrean neukan, sua nintzen eta Laura berriz kea, harrapaezin, urrutirantz, nigandik ihes gora loaren bila. Aspaldi galdua nuen fedea, baina pentsatzen nuen lehen maitasuna edo egia esan ez dakit zer izan zenaren errautsen azpian artean gera zitekeela desio txingarririk, ustekabean etorritako haizealdi ero eta bero batek altxa zitzakeela artean gori-gori egon zitezkeen lehengo pasioak, ez hain urrunak.

Oraindik ere gogoan baitut, beste batzuetan nolakoak izaten ziren goizetako Lauraren etorrerak, ustez ohea baino askoz ere gehiago elkarbanatzen genuenean. Lehen ez baitzen horrela ibiltzen, isilka, hanka puntetan, esnatuko ninduen beldurrez. Logelan sartu eta lehenengo gauza esna ote nengoen begiratzen zuen, eta berdin-berdin zitzaion lotan egotea edo ametsik gozoena zapuztea, Dooooondestááámihooooombre? oihukatzen zuen atea zeharkatu orduko, hemen daraman denborak ezabatu ez duen azentu karibetarra nahita are gehiago nabarmenduz. Jakin baitzekien ez niola purrustadarik egingo, ez niola inondik ere muzinik egingo bere gorputzari. Gehienez ere marmarrean aritzearen itxurak egin eta izara artean ezkutatuko nintzela, berak noiz harrapatuko zain eta desiratzen. Oin puntetan inguratzen ikusten nuen, ro-ro-ro urrumaka, animalia beroa halakoa, eta ez genuen elkar askatzen leher eginda geratzen ginen arte. Zaila zen esatea zein zen huntza eta zein harria, zein zen sua eta zein kiskaltzen ari zen egurra. Sei eta erdietan iratzargailuak pi-pi-pi jo orduko are estuago lotzen zitzaidan emakumea izarapean, No te vayas, maitia esanez. Eta nire barruan gogoa eta eginbeharra elkarren lehian, Quédate conmigo un momento nomás eta joan zaitez behingoz lanera. Horrelakoetan lehenak irabazi ohi zuen gehienetan, horrelakoetan zer hintzen, ba, makala, lñaki, batez ere Lauraren ermamiak gorputzean gora eta behera hasten zitzaizkianean, fereka laztanaren gainean, larruazaleko zentimetro bareena inarrosita sagailo bihurtuz. Beti iristen zen, ordea, barealdia, eta gero izaten ziren komeriak, berandu joatea edo ez azaltzea zuritzeko lanera deitu eta edozein aitzakia txoro asmatu beharrean ibiltzen nintzenean, telefonoaren aurrean gezurretan harrapatuko ote ninduten dardarka. Bateko autoaren aberia, besteko burutik beherakoa. Gurasoak ere tartean sartzan nituen, aitaren "azido urikoa" eta amaren "dialisia" zirela-eta, itxuraz sarri-sarri joan behar izaten baikenuen erietxera. Baina azkenaldian ez dut uste oso sinesgarriak gertatu zirenik, aurreko batean Luisek lotsa gutxirekin Sendatu al haiz, Bartolin... esan baitzidan, irribarrea ezpainetan eta neurritz gaineko begi-keinua, alua, eta hori aurpegira esaten ausartzeko, seinale bulegoko lankideen ahotan nenbilela.

Zer dakite, ordea, koitaduok, nire bizitzari buruz? lñaki Leizarraga naizela eta bulegoan enpresako kontuak egiten ditudala, besterik ez. Hori bai, ziurrenik ia gehienek ezagutuko naute nire gorputzkerarekin edo izaerarekin lotutako ezizenen batengatik. Hemen lanean hasi eta astebete pasatu baino lehen jarriko baitiote izengoitia. Ez zitzaien gehiegi kostatuko niri bat asmatzea, aitortu beharra baitaukat txikia eta argala naizela gorputz aldetik; eskasa ez nuke esango, badabiltza makina bat ni baino askoz ere okerragoak-eta. Berrogei urteak bueltatuak, baina ilearen soiluneak oraindik ere flekilloarekin estaltzeko moduan naiz. Arrunta aurpegiz, euskaldun sudur galanta. Ezin esan Leonardo Di Caprio naizenik, baina tira... Laurak lehen sarritan guapo askoa nintzela errepikatzen zidan. Izaerari buruz, berriz, zer esango dut, ba. Isila naizela, hitz gutxikoa, berdin du irribarrea edo negarra, emozioak inondik ere kanporatzen ez dituen horietakoa. Nabilen lekuan ez da izango ez zalaparta eta ez buila. Hain isila, ahalegin handirik gabe hitzik esan gabe egunak eta egunak pasatzeko gai izango bainintzateke. Eta hori guztia, naizen bezalakoa izatea ezin eraman, nonbait, hemen lanean, eta isekatu egiten naute. Inork ez dit ezer ere esan, baina sumatzen dut inguratzen natzaizenean nola gaiaz aldatzen duten eta bizkarra eman orduko kuxkuxean eta marmarrean hasten diren. Bai horixe. Ederki egiten dute barre nire lepotik, badakit. Zergatik eta ez dudalako beraiekin bat egiten, gizon txiki eta nanoa ni, ez trago bat hartzera, ez

afaltzera, ez asteburuan plana egiteko. Harritu egiten dira astelehen goiza iritsi eta asteburuko futbol emaitzei buruzko ezer ez dakidalako, eguraldiaz eta lanaz ez baizik hitz egiten ez dakidalako, itxuraz.

Zer dakite nitaz? Zer dakite azkenaldian Lauraren alboan bizi izan dudan amets eziaz? Eta orain bizi dudan oinazeaz? Zer dakite Lauraz? Ezer ez. Litekeena da, ordea, gaur goizean zerbait jakitea. Gaur bai, nahi duenari zabalduko baitiot bihotza.

Zutitza erabaki dut erlojuan seiak eta laurden zirenean. Ohetik irten aurretik, ordea, usna egin diot Lauraren gorputzari, disimuluan, bera ez konturatzeko moduan. Begiak itxita, zentzumen guztiak sudurrean kontzentratuta, elkar ezagutu genuenetik sarritan egin izan diodan moduan. Berezia bainaiz horretan ere. Ikaragarri gustatzen zait inguruan daukadan guztia usnatzea, sarritan begiek eta belarriek ezkututzen dutena jartzen baitute agerian, nabarmen. Eta Laurari buruz zer esan... hitzak eta izaerak adina erakarri ninduen bere usainak. Baina denborak aurrera egin ahala aldatu egin zen usaina, kasik eguraldia bezala, Laura zeru oskarbia baitzen ezagutu nuenean, eta orain berriz, ekaitza ez beste iragartzen duen eguraldi beltza. Lehen bai, lanetik itzuli eta nire alboan oheratzen zenean berehala atzematen nituen gauaren ilunean pixkanaka nahastutako eta tuezko soineko moduan jantzita ekarri ohi zituen usain txiki guztiak: azkenerako taberna barruan errezel bihurtzen zen zigarro kearena, alkoholez melatutako elkarrizketena, kalera irteterakoan oheratzerakoan baino askoz nabarmenagoa zen kolonia izandakoarena. Guztiak usain nitzakeen eta ez zitzaidan zaila Lauraren ibileren nondik norakoa irudikatzea.

Ohe berean lo egiten hasi eta gutxira, usna egin eta atsegin nuela esan nion behin. "Atsegin duzula, zer?" galdetu hark, kaletik itsatsita zekarren usaina berea balu bezala. Begiak itxi eta sudurra lepoan jarri nion, burua eta bizkar arteko zokonean sartu. Ez zen mugitu ere egin, ez zuen deusik esan; ezta beharrik ere. Mingain bustia bere larruazal lehorraren gainean labaindu eta gautxori geruza dastatu nuen. Laura hasieran itsaso beltz barea zen, baina gorputzaren astinaldi bakoitzean olatu zuriak askatzen ziren eta hantxe ito nintzen. Hura guztia gogoan dut, gaur goizean gertatu izan balitz bezala. Atsegin nuen usain hura, lehengo Laurarena, izarapeko berotan behe-lainoak lurra bezala epeltzen eta sorgintzen ninduen, ohe barruan sartzearekin batera itzaltzen zen gaueko izarloka magikoarena.

Non daude orain usain haiek guztiak? Gaur goizean nire alboan etzanda egon zen hura lehengo Laura al zen? Usna egin diodanean ezin izan diot ezer atzeman, azkenaldian ekarri ohi zuen garbitasun eta xaboi usain madarikatua izan ezean. Horrelakoetan, buru barnean jira-biraka dabilkidan kezka edo errezeloa berpiztu egiten zait, eta neure buruari esaten diot espabilatzeko, lñaki, espabilatzeko, gauzak ez doazela inola ere ondo. Azkenaldian, goizean goiz iritsi eta logelan sartu orduko beti Zer moduz lanean? galdetzen diot. Eta bere erantzuna beti berdina, Bien. Como siempre. Eta nik badakit ez dela beti bezala, orain hain arrotza egiten zaidan Laura hau ez baita duela hilabete batzuk etxera ekarri nuena, maitasuna eta abaroa behar zuen animalia beroa.

Gauean ere, elkarrekin egoteko daukagun denbora urrian zain eta erne egoten natzaio, zelatan, bere jokaera eta hitz bakoitza neurtu eta ohikotik ateratzen den edozein xehetasuni erreparatuz, susmoa berretsiko duen aztarrena aurkitu nahian. Oharkabean eta aspaldi eten baitzitzaigun errutina

gozoaren katea, elkar lotzen gintuen garai hartakoa alegia. Ezin esan zehatz-mehatz noiz edo nola izan zen. Nolabait esateko, guri ere zuhaitzen hostoei gertatzen zaiena pasatu zitzaigun: hasieran berde eta egoerarik ederrenean geunden; denborak aurrera egin ahala, ordea, zimurtu, horitu eta erori egin ginen, konturatzerako zuhaitza biluzik eta hutsik geratu zen arte. Gu orain bezala. Biluzik eta ezer gabe.

Ez naiz geldirik egotekoa eta irudimena erraz airatzen eta astintzen dut, haizetan bandera nekagaitza bihurtzeraino. Hala izan behar gainera, ezen, zer dakit benetan Laurari buruz? Zenbat aldiz egongo zen nirekin, etxera lotara gonbidatu nuen bitartean? Zortzi-hamar aldiz, logela izena merezi ere ez zuten maitetxeko gelaxka haietan. Soilik bere izenaren eta larruaren berri nuen, ia ezezaguna nuen eta momentu hartan sumatu genuen elkarren premiak bildu gintuen: nik zerbait banintzela sentitu behar nuen eta hori gogorarazteko norbait behar nuen alboan; Laurak, berriz, itotzeraino estutzen zuen zirkulu hartatik ihes egin beharra zeukan. Begiek ikusitakoa, sudurrak usnatutakoa, bere hitz urriek kontatutakoa, besterik ez nekien. Pentsatzen hasita pulamentuzko ezer gutxi. Adibidez norbaitek galdetuko balit "Nor da, ba, Laura?" ez dakit asmatuko nukeen behar bezala hitz gutxitan azaltzen. Ezin esan nirekin bizi den emakumea denik, egunean zehar elkarrekin apenas egoten baikara eta ohea izan ezik ezer gutxi gehiago elkarbanatzen baitugu. Ezin esan maite dudan emakumea denik, garai batean hala uste izan banuen ere. Ezin aitortu, azken finean, lan egiten zuen lekuan polizia orpoz orpo zebilkiola eta egunen batean kanporatuko zuten beldurrez putetxe batetik atera nuen emakume beltza, dominikarra denik.

Ohikoa ez zen usainak, edo hobeto esanda, ohiko usainen faltak piztu zuen niregan kezka eta errezeloa. Kea sumatu nuen baina ez nekien non zegoen sua, eta ke hark nahasi egin ninduen, gauzak behar bezala bereizten ez zidan uzten. Eta are aztoratuago egoten nintzen gauaren bakardadean.

Maitetxetik ihes eginda bezala etorri zenean traste gutxi ekarri zituen, apenas jantzita zeramana eta presaka esku poltsa batean sartutako arropa. Baina handik gutxira ez dakit nondik azaldu ziren, baina logelako armairuak gainezka egin zuen. Hango soineko eta konplementoak, zapatak eta alferrikako traste zaharra! Eta ordura arte bakeoso eta lasai egondako nire arropak zokoratuta, elkarren gainean baztertuta geratu ziren. Lehenengo egunetan ez zuen ezer ere egiten: sofan etzanda egon, telebistako sugetzarrei begira eta telefonoz etengabe hitz egin batekin eta bestearekin. Aspertu egiten omen zen, zerbait egin beharra omen zeukan, lanen bat aurkitu, eta hilabete pasatu baino lehen hasi zen lanean ez dakit nongo taberna batean, gauez, barraren atzean kamarero lanetan. Eta ni hasieran konforme, hark esaten eta eskatzen zidan guzti-guztiari egiten bainion amen.

Han lan egiten zuela denbora luze iragan bazen ere, Laurak esandakoa baino ez nekien bere lantokiari buruz, han gertatzen zenaz, eta jakin-mina pizturik egun batean lagunduko niola esan nion, alegia eramango nuela autoan, trago bat hartu eta bueltatuko nintzela. Berak ezetz, autobusean joango zela betiko moduan, notepreocupe, maitia. Ni burugogor jarri eta baietz, nahi nuela ezagutu bere lantokia. Baina berak are setatsuago ezetz eta ezetz, eguneroko martxari jarraitzeko. Eta ni zapuztu egin nintzen. Zeren beldur zen Laura, zer ezkutatu nahi zidan? Barraren atzean edariak zerbitzatzen ematen zituen sei orduetan zenbat jende pasatzen zen handik? Neure artean pentsatu nuen edonor izan zitekeela Lauraren lagun edo ezagun, pittin bat

ezagututa edozeinekin moldatzen baitzen ondo. Izan zitekeen alboko tabernako zerbitzari gaztea, bere taberna itxi ondoren egunero hara azaltzen hasi zena, are gogotsuago Laura han lanean hasi zela jakin zuenean. Edo biazanteren bat, astean bitan hirira jantzigintzako produktuak saltzera etortzen zena, jaioteritik eta emaztearengandik urrun egotea aprobe txatu nahian. Edo bankuko langilea, urtean zehar ahal zuen guztietan Kubara joan arren tartean mutilzaharraren begiak aseko zituen larru beltzaren bila. Ni izan ezik edonor izan zitekeen, Laurari begira orduak eta orduak, barraren ertzean iltzatuta edo eserita, edalontzia presarik gabe hustuz eta Laura noiz bereganatuko itxaropena betez. Laura ez zen haserre egongo gainera, edonork baitu gustuko lausenguak eta hitz ederrak entzutea, amildegi bihur daitekeen hogeita hamar urteko marra gainditu berri dagoenean, endemas.

Hori guztia, baldin eta egia bazen horrelako leku batean lan egiten zuena... Horregatik erabaki nuen, ba, beroaldi batean autoa hartu eta ezkutuan bere ibilbidean jarraitzea. Ez zitzaidan gehiegi kostatu autobusaren atzetik ibiltzea, ordu horretan apenas baitzegoen trafikorik. Egun hartan ezagutzen ez nituen hiriaren parajeak sumatu nituen gauaren ilunean, nik amets egiten nuen bitartean bizi zen beste errealitatea. Ordu erdi-edo pasatutakoan Laura autobusetik jaisten eta kalekka batean gora egiten ikusi nuen. Autoa ahal nuen moduan aparkatuta utzi eta disimuluan atzetik jarraitu nion. Egia esan, ez nekien non genbiltzan. Argi distiranta bizi keinukariak nagusi ziren kalekka ilunetan eta jendea zalapartan zegoen. Aldeetara ezker-eskuin zeharka begira ari nintzela Lauraren arrastoa galdu nuela konturatu nintzen. Pausoa arindu eta erdi korrika azkeneko aldiz ikusi nuen tokira iritsi nintzen. Inguruetan bere bila hastekotan ere egon nintzen, baina izuak seko geldiarazi ninduen. Iruditu zitzaidan kaleko lagun guztiak niri so egiten ari zirela, haien begi ninietan poltsikoetan zituzten aitzoen begirada zorrotzak antzematea uste izan nuen. Izuak hankak azkarrago mugiarazi zizkidan eta benetan zer egin behar nuen pentsatu gabe konturatzerako bueltan nintzen etorritako bidetik presaka. Autoa hartu eta etxera itzuli nintzen. Beroaldi hura ederki hoztu zen. Harrezkero, erabaki nuen hobe nuela ezer ez jakitea, nahiago nuela begiak itxita bizi ikusi nahi ez nuena jakitea baino.

Hurrengo goizean, ohi bezala etxean sartzean Laurak esnatu egin ninduen eta logelan aurrera zetorrela, atzera galdetu nion Zer moduz lanean? eta berak Bien. Como siempre erantzun. Orduan deliberatu nuen ezin genuela horrela jarraitu, zerbait egin beharra zegoela.

Seiak eta hogeita bostean iratzargailua kendu egin dut, jo ez zezan, eta eguneroko ibilbideari ekin. Horretarako propio erabili ohi dugun txokoan jantzi, Lauraren eta ametsaren erreinuko logelako atea nire atzean itxi, pasilloan zehar komuneraino joan eta hangoak egin ditut. Ispiluaren aurrean geratu eta lehenengo aurpegi jirari garbitu pasada eman diot uretan bustitako eskuekin; gero ileak berdindu, pazientziaz orraztu aurretik. Handik sukalde aldera joan naiz eta han ikusi dut, entzimerak gainean, Laurak erabilitako katilua, oraindik ere epel eta usain gozo, bera ohean egongo den bezala, lotan. Beste katilu bat hartu eta kafe beltz-beltzez bete ondoren mikrouhin labean sartu dut ontzia eta irratia piztu. Musika epel-epel ari zen, gogoan dut Cat Stevensen abestia zela. Bukatutakoan esataria hizketan hasi da, baina ez diot jaramon gehiegirik egin, sukaldeko mahai kantoian apoiatuta hamaika aldiz eztabaidatutako gaia etorri baitzait atzera gogora, Laura lanean hasi eta segituan, ahal nuen guztietan platerera ateratzen nuena.

Zenbat aldiz aipatzen nion nik, ahalik eta samurren, hitz bakoitza neurtuta, nahi izanez gero bizi gintezkeela soldata bakarrarekin; ez zeukala zertan horrela ibili lanean, gauero-gauero, iluntzetik kasik eguna argitu arte... Horrela jarraituz gero apenas ikusten genuela elkar astegunetan, eta asteburuetan berdin ibiltzen ginela, deskantsatu baino ez baitzuen gogoan. Hura guztia egia zen, baina hain ongi prestatutako nire erretolikaren asmo bakarra bion arteko harremana gehiago estutzea zen, edo hitz gutxitan esanda, Laura kate motzean lotu. Iruditzen zitzaidan, behintzat, ezin genuela ordura arte bezala jarraitu, eguna joan eta eguna etorri, justu-justu agur esateko elkar ikusiz.

Baina berak ezetz eta ezetz, ezta pentsatu ere. Gozoa jarri zen. Hura errieta egin zidana! Ederki asko antzeman zizkidan asmoak. Ea zer pentsatzen nuen nik, hain ondo ikasia zuen dekebas hura esan zidan, paternalista halakoa, bera librea zela nahi zuena egiteko eta nahi zuelako zegoela nirekin, ez geneukala egunerokoa beste loturarik. Emakume on, zintzo eta esanekoa nahi banuen bilatzeko lasai, gero eta gutxiago baina geratzen zirela oraindik ere. Berarekin jai neukala horren zain baldin banengoan, eta inola ere ez zuela utziko lana. Gau animalia halakoa. Orain jabetzen naiz gainera ordurako ohituak zituela begiak ez ezik, zentzumen guztiak gauera eta iluntasunera, atseginez, urrumaka bere baitan harilkatuta.

Baina begira nola gauden gaur egunean, zein egoeratan. Hainbesteko hitz jariora zertarako? Zergatik jarraitzen du nirekin? Horra hor azkenaldian atetik sartzen sumatu orduko ernetzen zaidan galdera, erantzunik gabea.

Gosaldu ondoren atzera logelara sartu naizenean ilunpean sumatu dut bere gorputzaren soslaia, lo luze bezain zerraldo. Zazpiak laurden gutxi. Gainera makurtu eta musu eman diot, ezpaineak masaila ukitu besterik ez eta "Gero arte" esan diot, gaurkoa ohiko eguna izango balitz bezala. Bere arnas hotsa entzun dut urrumaka, ametsaren olatuak zeramala, eta eskua pasatu diot ilaje beltz kiribildutik. Halaxe utzi dut lotan Laura, izara bero gozotan lokartutako katemea.

Orain zortziak eta hogeita bost dira bulegoko ate gainean daukagun erlojuan. Zeinen astiro pasatzen den denbora, errotarria bezain astun eta errepikakor buru barruan ideia bera bueltaka dabilenean. Nik nahi baino askoz ere beranduago telefonoak joko du eta Maribelen ahots gozoak kanpotik deia daukadala esango dit. Litekeena da Kontxi izatea, etxe azpiko fruta-dendakoa, urduri baino urduriago, hitzak elkarri ezin josirik eta kasik ulertezin: Iñai, bai, ni Kontx, albokoa. Begira... estoouoo... ba... gertatu da... kristona, eta nik lasaitzeko aginduko diot, eta ulertzeko moduan hitz egiteko faborez. Edo litekeena da poliziaren ahots profesional eta aseptikoa izatea, zoritxarren berri hamaika aldiz eman duenaren ziurtzi eta zuhurtziaz Egun on, Iñaki Leizarraga? Aizu, begira, ezbehar bat izan da zure etxean eta etor zaitez azkar. Deitzen duena deitzen duela, nik harridura eta urduritasuna adieraziko dut, Zer gertatu da ba? Banoa berehala!, ezer jakingo ez banu bezala. Alferrik ibili naiz ba, joan den bi asteetan, egun honetan nola jokatu behar dudan entseatzen!

Pena gehien etxeak ematen dit, baina aseguru paperak aspaldi zuzendu nituen. Bertara iritsi orduko begiak zabal-zabal jarriko ditut eta negarrari emango diot, etxebizitza erabat txikituta ikusten dudanean. Seguruenik nirea ez ezik auzoko batzuenak ere horma bat zutik ez dutela egongo dira. Agian gure Feliperena ere bai tartean; izorrari oraingoan ere, kabroia. Izan ere, gas leherketak horrelakoak izaten dira, indiskriminatuak eta kontrolagaitzak. Norbaitek gasaren pasoa zabalik utzi eta nahikoa da txispazo bat, edota

adibidez sukaldean piztuta utzi dudan kandela, leherketa eragin eta jo eta dena suntsitzeko. Laura! Laura! oihukatuko dut adreilu eta eskaiola hondakinen artean eta norbaitek esango dit alferrik ari naizela, anbulantzian eraman dutela oso-oso-oso gaizki —ez da ausartuko ordurako hilda dagoela esatera, errukibera— Malkotan urtuko naiz alboan harrapatzen dudan lehenengo pertsonaren sorbaldan. Patetikoa izango da.

Gogorregia izan naizela? Badaudela gauzak konpontzeko beste era batzuk? Saiatu, saiatu naiz, baina bi astean zehar nik uste baino efektu gutxiago egin du Cola Cao-tan nahastu nion txingurrien kontrako benenoak.

Zortzi eta erdiak dira eta han egongo da lotan Laura, ro-ro-ro, urrumaka.